Helburua: La Salle-Berrozpe Ikastetxeko jangelako zerbitzuaren funtzionamendu egoki bat lortzea, erabiltzaile guztiengandik (Ikastetxeko ikasle, irakasle,...)

1. Ikastetxeari dagokionez

1.1. Ikasturte bakoitzaren hasieran, Zuzendaritzak erabakiko ditu kurtsoan zehar indarrean egongo diren prezioak eta familiei ezagutaraziko dizkie. Prezio hauek ikasturtean zehar jangela erabiliko duten ikasleentzat, nahiz noizbehinka erabiliko dutenentzat kalkulatuta egongo dira.

1.2.- Arratsaldeko klaseak hasi bitarteko denboraz Ikastetxea arduratzen da, ondoren adierazten den eran:

- **2 urteko** ikasleentzat: siestara lagunduz
- **Lehen Hezkuntzako** beste ikasleentzat: jokoak edo bideoak + Ausolan hezkuntza proiektua
- **Lehen Hezkuntzako** ikasleentzat: Berrozpetik jangelaraino lagunduko dieten pertsona arduradunak izango dira; halaber, pertsona berdinek lagunduko diete jangelatik Berrozperaino, non hainbat jokotan edo jolastokian edo etxerako lanak egiten entretenituko diren + Ausolan hezkuntza proiektua.
- **Bigarren Hezkuntzako** ikasleentzat: otordua egin aurretik, bitartean eta ondoren, arduraduna izango dute.

Denbora honetan zehar gerta daitekeen edozein gorabeheraz, eskola arduratuko da, ikastetxe barruan gertatzen bada behintzat.

2. Jangelako pertsona arduradunari buruz.

Jangelako Arduraduna lan hauetaz arduratzen da:

2.1.- Aldez aurretik, beraien seme alabei zerbitzatuko zaien hilabeteko menua (DBH-DBHO), edo hiru hilabetekoa (HH – LH) familiei helaraztea.
2.2.- Zerbitzuarekin erlazionatutako pertsonen ahozko edo formulario bidezko iradokizunak erantzutea: ikasleak, irakasleak, langileak, ...
2.3.- Zerbitzuaren funtzionamendu ona izan dadin mekanismo egokiak ezartzea.
2.4.- Jangelako langileen antolaketa.

3. Jangelako pertsonalarekiko:

3.1 Jangelako langileak:

- Erabiltzaile guztiei bazkaria zerbitzatzeko ardura izango du.
- Jatorduak puntualtasun handienaz emateko ardura izango du.

3.2.- Monitoreak:

- Hezkuntza mailaren arabera ikasle guztiei laguntzeko ardura izango dute.

- HH-LH-DBH eta DBHOn eguneroko asistentzia orria jasotzeko ardura izango dute.
- Txikienei jaten laguntzeko ardura izango dute.
- Mahaian oinarrizko gizalege arauak betetzeko ardura izango dute. (4.9)
- Jangelatik ezin izango dira irten azkeneko ikaslea irten arte.
- Bazkaria bukatu eta klaseak hasi bitarteko denbora zaintzeaz arduratuko dira: jokoak, diziplina,tutore/koordinadoreekin erlazioak, eta abar.

4. Erabiltzaileei dagokionez

4.1. Ikasturte guztiko jangelaren erabileraren ohiko tarifa hartu nahi duten erabiltzaileek, irailetik/urritik maiatzera bitarteko bederatzi edo zortzi hileroko kuota berdinak ordaindu beharko dituzte (aukeratutako aukeraren arabera), hileko jangela egunak edozein direlarik.

4.2.- Ez ohiko eran Jangelako zerbitzua kontratatzen duten erabiltzaileek, jangela erabiliko duten egunaren bezperan hartu behar dute eguerdiko 12ak baino lehen. Ikastetxeko harreran, justifikatutako kausetan izan ezik, non egiaztatu beharko duten.

4.3.- Jangelako alta eta/edo bajak idazkaritzan helarazi behar dira gertaera jazoko den aurreko hilabeteko 25a baino lehen. Egin ezean, normalean ordaintzen den jangelako kuotaren %100 fakturatuko da.

4.4.- Opor hilabeteekin kointziditzen duten bajak (Eguberriak, Aste Santua, Ekaina), Aipatutako hilabetearen kuota ordaindu beharko dute. Kontrako kasuan, aipatutako zerbitzua ezin izango dute erabili, aipatutako hilabeteak ordaindu arte.

4.5.- Gaixotasun edo mediku arrazoi batengatik erabiltzaile batek ezin badu jangelara etorri jarraian 5 egun baino gehiagotan, medikuaren egiaztagiria entregatu beharko du lehen-bailen. Bueltatuko zaion zenbatekoa etorri ez den eguneko 3,00€-koa izango da. Arrazoi pertsonalengatiko ez etortzeak itzultze eskubiderik ez dute sortuko.

4.6.- Bi ordain-agiri ordaindu gabe izateak jangelako zerbitzua erabiltzen jarraitzea galaraziko dute.

4.7.- Elikagairen bat hartu ezin duen erabiltzaileren baten kasuan, jangelako arduradunari jakinaraziko dio:

- Alergiak, zeliakoak, ... sendagilearen agiria behar da.
- Arrazoi erlijiosoak: aitak edo amak sinatutako agiria.

4.8.- Eskolako jangelako erabiltzaileek bertako altzari, ontziteria, ... behar bezala erabiltzeko konpromisoa hartzen dute.

4.9.- Jangelako erabiltzaileak mahaian oinarrizko gizalege arauak beteko dituzte:

- *Hezieraz eta arduraz jan.*
- *Pertsonalaren lana ahalbidetu eta errespetatu.*
- *Ordutegiak errespetatu.*
- *Bere txanda itxaron, bultzatu gabe.*
- *Janaria alferrik ez galdu (jolas egin, bota, ...).*
- *Jangelatik janaria ez atera.*
- ...

4.10.- Erabiltzaile orok jangelako arduradunari bere iradokizunak azaltzeko eskubidea du. Horretarako, ikastetxeko web orrian aurkitzen den inprimakia deskargatu dezakete.Deskargatutako inprimakian adierazten da nola entregatu.

4.11.- Familiak aurretik justifikatutako baimenik gabe eskolako esparrutik ezin izango da irten ikaslea. Ustekabean eguerdian atera beharrean aurkitzen diren ikasleek idatziz jakitera eman beharko dute.

5. Espazioaren erabilerari buruz

5.1.- Jangela

- Ordutegia eta kokalekua: Ikasturte bakoitzaren hasieran ezarriko dira ordutegiak eta kokalekuak talde ezberdinetan.

- Garbitasuna: Nahi duenak ekar dezake hortz-eskuila eta hortzetako pasta eta hortzak garbitu. Hiruhilabete bakoitzaren bukaeran, etxean ikuskapena egin dezaten hortz-eskuilak banatuko dira.

- Haur Hezkuntzako (HH) ikasleek astero ekarri beharko dute mantala bere izenarekin.

5.2.- Siesta

- 2 urteko ikasleek egunero egingo dute siesta, 2 urtekoen ikasgelan.
- 3 urteko ikasleek egunero egingo dute siesta lehenengo hiruhilabetean. Ondoren, pixkanaka eta gurasoekin koordinatuz kentzen joango zaie.
- Monitorea izango da siestarako prestatu, mantak eta hamakak bildu atea giltzaz itxi eta ikasgelara laguntzeko arduraduna 14:30ak arte.

5.3.- Jolastokia

- Monitorea izango da dena jasota geratzen dela ontzat emateko arduradunak.
- DBHko ikasleak bazkalondoren jolastokian egongo dira dagokien monitorearen zaintzapean.

5.4.- Komunak.

- HHko ikasleek, bazkal ordutik klaseko ordura bitarteko denboran, HHko eraikineko korridorean dagoen komuna erabiliko dute.

- LHko ikasleek, bazkal ordutik klaseko ordura bitarteko denboran, BERROZPEko kanpoko komuna erabiliko dute.

- DBH-DBHOko ikasleek, bazkal ordutik klaseko ordura bitarteko denboran, patioko edo ikastetxeko komunak erabiliko dituzte, zaintzaileari abisatuz.

6. HUTSEGITEAK

6.1. Arinak

- Janariarekin jolastu, janaria bota, beste pertsonak zikindu , jangelatik atera , ...
- Mahai-tresnekin, bandejekin,.. jolastu.
- Ez bildu edo agindu zaion zerbait ez egin.
- Eskolako esparrura SARTU.
- Lagun bat, zaintzaile bat, irakasle bat, jangelako pertsonalarekiko, ... jarrera ardura gabea.
- Indiziplina, irain, edo laido ekintza ez larriak jangelako kideen aurka.
- Ikastetxeko " Barruko Erregimen Araudian " sailkatuta agertzen diren era honetako guztiak.

6.2.- Larriak

- Jangelako edozein pertsonaren aurkako eraso fisikoak.
- Jangelako edozein pertsonaren aurkako hitzezko erasoak eta jokaerak erasokor edo iraingarriak
- Jangelako edozein materialaren aurkako indarkeria larria.
- Ikastetxeko " BEA "n sailkatuta agertzen diren era honetako guztiak.

7. ZIGORRAK

7.1. Arinak

- Kargu hartzea, ahozko solasaldi pribatua.
- Idatzizko jakinarazpena, zeinen inprimakia jangelako arduradunak artxibatuko duen.
- Zuzendu nahi den portaerarekin zerikusia duen lan bat egitea:
  - Jarri edo jaso mahaia, ura, erratza edo lanbasa pasa ...
  - Materialak ordenatu.
  - Idazlan bat egin.
  - Akatsak konpondu, garbitu, ...

- Errepikatutako hutsegite arinak, 1-4 egun arteko kanporatzea.

7.2. Larriak

- Abisu telefonoz etxera.
- Aste batez jangela jaso eta garbitzeko laguntza.
- 5-30 egun arteko kanporatzea.

6. PROZEDURA

HUTSEGITE ARINAK zigortu ditzakete monitoreek, ahoz ikasleari adieraziz eta bere aurrean jakinarazpena betez. Gero, jakinarazpena jangelako arduradunari emango zaio, zeinek zigortu ahal izango duen.

HUTSEGITE LARRIAK jangelako pertsona arduradunak zigortu ditzake, zeinek Zuzendariari edo dagokion tutoreari helarazi edo kontsultatuko dion.

ARINGARRI kontuan hartuko da:

- Aurretik zigortua ez izana.
- Gaizkia gauzatzeko asmorik ez izatea.

LARRIGARRI kontuan hartuko da:

- Aldez aurretik pentsatzea.
- Zirikatzea.
- Errepikapena